



MADDI SOROA

Baleren Bakaikoa Azurmendi



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Europar Legebiltzar barreiatua

EUROPAR BATASUNEKO LEGEBILTZARRA hautatu dugu eta aurreikusi behar da zer ekarriko digun datozen bost urteetan. Ziu-rrerik, Jean-Claude Juncker eskuindarrak eskuratuko du Europako Batzordeko buruzagitzeta eta orain arte egon denak, Barroso jaunak, egin duen lanaren oso antzekoa burutuko du, Merkelek eta *lobby* ekonomiko boteretsuek ez baitiote joko handirik egiten utziko. Beraz, austerizidioak jende txiroa jipoitzen jarraituko du eta klase ertainen gainbeherak ez du etenik izango.

Eta, zer gertatuko litzateke Martin Schulz sozialdemokrata hautatuko balute? Berdintsu. Nahiz Schulz eskuinaren “mailu” bezala saldu ziguten azken Legebiltzarreko lehendakari hautatua izan zenean. Baina hitz gogor samarrez gain, ez da gai izan EBko norabide neoliberalak galgatzeko edo birbideratzeko. Hala ere, gerta daiteke bi alderdiek bat egitea EB gobernatzeko.

Hauteskunde kanpainan isilik egon dira Merkataritza eta Inbertsiotarako Atlantikoko bi aldeetako Hitzarmen (TTIP edo ATCI) beldurgarriak gure artean izango dituen ondorioei buruz; kanpainako egun gehienak “matxismoa dela eta ez dela” aritu dira, gai horietan baitituzte aldeak, ez ekonomian non berdintsuak baitira bi alderdiak

Izan ere, gogoratu behar dugu sozialdemokrata eta popularrak bat eginda daudela herrialde askotako gobernuetan, koalizioan. Alemanian bi alderdiek gobernatzen dute eta Europako periferiaren egoera tamalgarria gobernu horri egotzi behar zaio, austeritatearen sustatzaile nagusia bera baita, Europako Batzordeak, Europako Banku Zentralak eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) osatzen duten Troikaren alboan. Grezian ere gobernuan bi alderdiak daude. Frantziako Estatuan Hollanderen sozialdemokrata eskuina bezain urruti joan dira jendarte gastuen murrizketetan. Eta abar.

Espainiako Estatuan, berriz, zein da bi alderdi nagusien arteko aldea ekonomia

arloan? Ederki asko dakigu 2011ko abuztuan Zapateroren zuzendaritzapean bi alderdiek Konstituzio higiezina aldatu zutela finantza erakundearen ordainketei lehentasuna emateko aurrekontu publikoaren gastu guztien artean. Horrela, kobratzen lehenak izango dira bankuak eta gero hiritarrok, zergadunok. EAEn eta Nafarroan ere bat egiten dute ekonomia eta abertzaleen aurkako politiketan.

Bestalde, hauteskunde kanpainan isilik egon dira Merkataritza eta Inbertsiotarako Atlantikoko bi aldeetako Hitzarmen (TTIP edo ATCI) beldurgarriak gure artean izango dituen ondorioei buruz; kanpainako egun gehienak “matxismoa dela eta ez dela” aritu dira, gai horietan baitituzte aldeak, ez ekonomian non berdintsuak baitira bi alderdiak. Izan ere, Hitzarmen hori onesten bada, ondorio kezkarriak izango ditugu ekoizkin transgenikoei eta beste hainbat elikagai kaltegarriari atek irekiko zaizkielako. Multinazionalen mozkinak babestuta geratuko dira beraien murrizketak ematen badira estaturen bateko neurri politiko-ekonomikoak direla eta; kasu hauetan konpentsazioak eska ditzakete eta aurrekontu publikoek izango dute murrizketa horien erantzukizuna.

Hau guztia kontuan hartuta, EBko Legebiltzar berriak kemen ahula izango du Troikari aurre egiteko, dena kontrolpean baitaude bi alderdi nagusiek eta horiek *lobby* aseezinen zerbitzuan. Hala ere, Legebiltzar hori bozgorailu bikaina izango da makroekonomian hartuko diren neurri kaltegarriak aireratzeko, erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeko edo Espainiako demokrazia defizitarioa salatzeko. Horiek izango dira, besteren artean, alderdi txikiak osatutako taldeek egin dezaketena.

Beraz, Europar Batasunak bere agintari ekonomikoek markatzen dioten bidetik jarraituko du, negozio handiak sustatuz eta horren ondorioz jendarte kohesioa ahulduz. Azken finean, bere legitimitatea eskasago bihurtuko da, kontatzen zizkiguten istorio miresgarriak ezerezean geratzen ari baitira. ■

